




Ingurumen Estrategiaren Agiria  
Saila 25.zk. 2003ko Uztaila

**ingurumena.net**

*Zure esku dago*

# Zementuaren sektorearen ingurumen-ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarriari (2003-2006)



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE



**Cementos Rezola**  
Italcementi Group



## Zementuaren sektoreko Borondatezko Ingurumen Akordioa

### Euskal Autonomia Erkidegoan sinatu dutenen iritzia.

*“Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020 oso garrantzitsua izan da euskal ingurumen-politikan”*



**Sabin Intxaurre**

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua

**E**sparru geografiko eta administratibo guztietan onartzen da legeria tradizionala ez dela nahikoa eta ez dela nahikoa izan bere kabuz ingurumenaren arazoak konpontzeko. Errealitate hori kontuan hartuz, Administrazioarentzat ez du inolako zentzurik jarduera ekonomikoak eta ingurumenaren babesa bereizten jarraitzeak.

Administrazioek sormen handiagoa eduki behar dute eta merkatutik ikasi behar dute; horrez gain, ingurumenari loturiko helburu handizaleagoak edukitzea ahalbidetzen duten tresnak aplikatu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-tradizioak presio eta eragin handiak sorrarazi ditu natur baliabideetan, baina gure herriak ahalmen teknologiko, ekonomiko eta berritzaile handia edukitzea ere ahalbidetu du.

goeko hamarkadatik gaurdaino, euskal industria aldatu egin da. Ingurunearekiko lehen baino askoz ere ardura handiagoa duen sektorea dela erakutsi du. 2001ko Ingurumenaren Diagnostikoaren arabera, industriaren sektoreak eman ditu aurrerapauso handienak ekoeraginkortasunean eta autoerregulazioko neurrien ezarpenean (kalitateko, ingurumenaren kudeaketako eta laneko osasuneko estandarrak eta arauak).

Gainera, euskal industria aitzindaria da berrikuntzaren kulturaren eta jakintza zientifikoa maila guztietan sustatzen. Horrez gain, eraginkortasunez moldatzen da fenomeno berrietara, esate baterako, globalizaziora, informazio-teknologiaren garapenera eta lehiakortasuneko eta ikerketa eta garapenerako ikuspegi berrietara.

Euskal industriaren sektoreak esparru egonkorra eta ez-loteslea eskatzen du, etorkizuneko lege-garapenera aurreratu hartzeko aukera ematen diona, guztia etengabe berrikusi eta hobetzeko prozesu malgu eta adostuaren bidez epe ertainean planifikatuz.

Ildo horretatik, 2002ko ekainaren 4an “Garapen Jasangarriko EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020” onestea funtsezko urratsa izan zen EAEko ingurumen-politikan. Estrategia hori ezartzearen ondorioz, zerikusia duen eragile sozioekonomiko bakoitzak egin beharreko jarduerak hedatu egingo dira, eta tresna desberdinak erabiliko dira, ingurumen-estrategia horretan jasotzen diren helburu eta konpromisoak bete ahal izateko.

Helburu horiek betetzeko abian jarri den prozesua eragile guztiek erantzukizuna bere gain hartuz egin behar da, ingurumen-erantzukizuna guztien arteko kultura dela ulertuz. Kultura berri hori, besteak beste, Administrazioaren eta euskal sektore industriaren arteko Borondatezko Akordioaren bitartez gauzatzea nahi dugu.

Borondatezko Akordioek, beraz, jarduteko esparru gardena ezartzen dute eta, horrez gain, Administrazioei politika eta tresna legegile eta ekonomikoak bizkor eta modu errentagarrian ezartzeko aukera ematen die. Borondatezko Akordioek etekin kualitatibo garbiak ekar ditzakete, esate baterako, elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru egonkorra ezartzea enpresa eta administrazioaren artean, informazioa askoz ere gehiago partekatzea, enpresen sentikortasuna handitzea eta haien ingurumenaren kudeaketa hobetzea.



**Hervé de Saint Pierre**  
Cementos Rezolako lehendakaria

*“Zementuaren euskal sektoreak garapen jasangarrian laguntzeko borondatea erakutsi du”*

## Sociedad Financiera y Minera, S.A. - Cementos Rezola

**C**ementos Rezolako kide garen aldetik, atsegin handiz hartu dugu borondatezko akordio hau geure gain, gure enpresak ingurumenarekiko duen konpromisoaren printzipio estrategikoak sakontzea ekarriko baitu. Sentikortasun hori eta erantzukizunak geure gain hartzeko konpromiso hori Euskal Autonomia Erkidegoko zementuaren sektore osora hedatzearen ondorioz, euskal sektore publikoaren eta pribatuaren arteko harremanak normalizatu egingo dira, eta minberatasun historikoak gainditu egin ahal izango dira. Horrek guztiak onura nabariak ekarriko dizkio gizarte osoari.

Akordio honen aitzindari-izaerak agerian uzten du zementuaren euskal sektoreak borondate sendoa duela gizarte garatuek sortzen dituzten arazo jakin batzuk konpontzen positiboki laguntzeko. Orain emango dugun aurrerapauso honek sakondu egingo du azken urteotan euskal sektore publikoarekiko harremanetan nagusitu den lankidetzaz-ildo.

Zementuaren sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenari dagokionez autoerregulatzeko urratsa ematea posible da gaur egun, bi faktoreri esker: alde batetik, osatzen duten enpresen heldutasuna (izan ere, Cementos Rezolak 150 urtetik gora daramatza bere enpresa-jarduera Euskadin garatzen) eta, bestetik, Rio de Janeiro, Kioto eta Johannesburgoko nazioarteko akordioek bultzatutako garapen jasangarriarekiko konpromiso sendoa.

Zalantzarik gabe, borondatezko akordio hau garatu eta betetzeak zailtasun teknikoak ekarriko ditu berekin eta, halaber, gaur egun berrikuste-prozesuan dauden tradizio kulturalen testuinguruan eratutako mentalitateen ondorioz sortutako zenbait ohitura kaltegarri ere gainditu egin beharko ditugu.

Cementos Rezolako kideek oso garbi daukagu: garapen jasangarriarekin konpromisoa dugu eta gure esku dauden ahalegin guztiak egingo ditugu geure borondatez sortzen lagundu ditugun itxaropenei hutsik ez egiteko.

## Lemona Industrial, S.A.V.

**L**emona Industrial-en 2005eko Plan Estrategikoaren oinarritzko zutabeetakoa bat garapen jasangarriarekiko konpromisoa da, zementuaren ekoizpena eta ingurumena babestea eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea bateragarri egiteko.

Prest gaude baliabide ekonomikoak jartzeko, konfiantza- eta jarraitutasun-esparruan, ingurumena hobetzeko bide horretan laguntzeko.

Euskal administrazioak herriko eragile sozioekonomikoekin lankidetzan aritzeko bideak jarri ditu -Borondatezko Akordioak-, eta, horri esker, sektoreen arteko sinergiak sustatuko dira. Oinarria ingurumenaren gaineko ardurua da, administrazioaren, porlanaren sektorearen eta beste industria-sektore batzuen artean partekatutako kultura berriaren barruan; ingurumena helburu izateaz gain, euskal industriaren lehiakortasuna ziurtatu eta sustatu nahi da.

Euskal Autonomia Erkidegoko zementuaren sektoreak ekarpen garrantzitsua egin dio Ingurumen Ministerioaren eta Estatuko sektore-taldearen arteko Borondatezko Akordioari, bere eskarmentua, eta, horri esker, asko arindu dira Euskal Akordioaren izapideak.

Konpromiso maila handiko Borondatezko Akordia sinatzeak, ahalegin ekonomiko handia egitea eskatzen die enpresei, eta bost hilabete eta gehixeagoko negoziazioen ondoren lortu da. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen saileko eta IHOBeko pertsonal teknikoaren laguntza bikainari esker lortu da hori.

Jasangarritasunaren gainean eraiki nahi ditugu gure bizi-kalitatea eta gure etorkizuna, eta gainerako industria-sektoreei garapen jasangarriaren trenera igo daitezen gonbit egin nahi diegu, nahi dugun helburu horretara guztiok batera irits gaituzen.



**José Domingo de Ampuero Osma**  
Lemona Industrial-eko lehendakaria

*“Zementuaren ekoizpena eta ingurumena babestea eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea bateragarri egin nahi ditugu”*

## Zementuaren sektorea

### Euskal Autonomia Erkidegoan.

Zementua munduan gehien erabiltzen den produktu industrial da, eta mineralak prozesatuz lortzen da. Bere kontsumoa nabarmen hazi da azken urteotan; ondorioz, 60ko hamarkadan bere produkzioa eta erabilera laukoiztu egin zen. Prezio txikiko eta aldaberatasun handiko lehengaia da, eta nagusiki eraikuntzaren sektorean eta obra zibilean erabiltzen da. Zementurik gabe, ezingo genuke gaur egungo ongizatearen kontzeptua ulertu.

Euskal Autonomia Erkidegoan zementuaren sektoreak bi enpresa ditu ordezkari: **Lemona Industrial S.A.U.**, Lemoan (Bizkaia) produktuaren instalazioa duena, eta **Sociedad Financiera y Minera, S.A. - Cementos Rezola**, Arrigorriagan (Bizkaia) eta Donostian (Gipuzkoa) fabrikazioko instalazio bana dituena.

Bi erakundeetako instalazioek **ISO 9001** eta **ISO 14001** arauen ziurtagiriak dituzte, eta aitzindariak dira produktuaren berrikuntzan eta garapenean. Elkarrekin, zementuaren sektorea lurralde honetako aurreratuenetakoa bihurtu dute, kalitateari eta ingurumenari dagokienez. Bi enpresen datuak elkartzuz, 2001 eta 2002. urteetan 378 langile enplegatutako dituzte eta 200 milioi eurotik gora fakturatu dute.

Aipaturiko erakundeek ingurumenean izan ditzaketen eraginak beren kudeaketa-sistemen arabera ardurak bere gain hartuz kudeatzen dituzten arren, negozioaren bolumenak eta produktu honek merkatuan duen geroz eta garrantzi handiagoak, geroz eta kontrol eta prebentzio estuagoak izatera bultzatzen ditu, batez ere beren produkzio-prozesuek kaltetzen dituzten ingurumenaren alderdi nagusiei dagokienez.


## ZEMENTU - SEKTOREAK INGURUMENEAN DUEN ERAGINA

*2002ean egindako ingurumen-diagnostiko sektorialaren ondorioak, hitzarmena lortzeko oinarritzat har daitezkeenak, adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko zementu-sektoreak presio hauek eragiten dituela ingurumenean:*



- **MATERIALEN KONTSUMOA:** Euskal Autonomia Erkidegoko materialen kontsumo osoaren % 2,2. Adierazle hori nabarmen hobetu daiteke prozesuan bestelako industria-prozesuetako hondakin-korronteak sartuz gero.
- **ATMOSFERARAKO EMISIOAK:** instalazio horietako produkzio handiekin lotuta daude. Hala ere, emisioen kontrolean aurrerapen handienak egin dituzten sektoreetako bat da.

*Lemona Industrial S.A.U. eta Sociedad Financiera y Minera, S.A enpresak aitzindariak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak sustatutako borondatezko hitzarmenetan parte hartzen. Hitzarmen horiek, bi aldeek sinatuak, ingurumenean lehentasuna duten gaiak hobetzeko duten konpromisoa islatzen dute. Konpromiso horiek eraginak minimizatzeke eta garapen jasangarriaren aldeko etengabeko prozesuan gauzatuko dira.*

## EKOERAGINKORTASUNA ZEMENTUAREN SEKTOREAN



## EUSKADIREN PARTAIDETZA (%) ESTATUKO ZEMENTUAREN SEKTOREAN



Iturria: OFICEMEN

# Euskal Autonomia Erkidegoa garapen jasangarriranzko bidean: Garapen Jasangarriaren

## EAEko Ingurumen Estrategia (2002-2020).

**E**uskal Autonomia Erkidegoan "garapen jasangarria" kontzeptua arau-izaerarekin ingurumena babesteko lege orokorrean jaso zen lehenengo aldiz (otsailaren 27ko 3/1998 legean). Ordudanik, kontzeptu horrek adierazten dituen printzipioak lortzeko egin den aurrerapauso handiena "Garapen jasangarriaren EAEko ingurumen-estrategia (2002-2020)" sortzea izan da. Dokumentu horretan EAEk epe luzean dituen ingurumen-helburuak jasotzen dira, bai eta "jasangarritasuna" delakoa lortzeko bete beharreko helburu, estrategia-ildo eta konpromisoak ere.

**Garapen jasangarria, jasangarritasuna.** Termino hauekin honakoa adierazi nahi da: euskal gizarte osoak ingurumenerako eta gizarterako lortu behar dituen hainbat xede ezartzea, oraingo belaunaldiarentzat bizikaltate ezin hobea bermatu ahal izateko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Helburu orokor hori betetzeko, ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien laguntza: industriakoena, ekonomikoena, sozialena. Euskal industriaren baterako parte-hartze hori "Garapen jasangarriaren EAEko ingurumen-estrategia (2002-2020)" dokumentuan jasotako konpromiso batzuetan zehazten da, esate baterako, euskal administrazioak lehenik IPPC 96/61 (Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 16ko 2002 legea) arteztarauaren eraginpean dauden industria-sektoreekin borondatezko akordioak sinatzea eta, ondoren, baita gainerako industria-sektoreekin ere.

## Ingurumeneko borondatezko akordioak:

### Lehena, zementuaren sektorea.

**Z**ementuaren euskal sektorea izan da Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin Borondatezko Akordioa adostu duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen industria-sektorea. Akordioa **2003ko ekainaren 11n** sinatu zen, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan, euskal erakundeetako eta enpresa-munduko ordezkari nagusien aurrean.

## BORONDATEZKO AKORDIOEK HIRU HELBURU DITUZTE:

Lehenengo eta behin, airera eta uretara egindako emisioak eta isurketak hobetzea, hondakin gutxiago sortzea, eta/edo horien balorizazioa handitzea; bigarrenik, ingurumena kudeatzeko sistemaren baten bidez ziurtatzea (ISO 14001 edo EMAS); eta bukatzeko, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko arteztarauan (IPPC 96/61 arteztarauan) proposaturiko helburuak lortzea.



Enpresa bakoitzak zuzenean sinatzen ditu borondatezko hitzarmenak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Ingurumen Sailarekin, eta horietan ezartzen dira erakunde bakoitzak lortu beharreko ingurumen-helburuak, hitzarmenaren segimendua egiteko adierazleak eta Administrazioaren beraren ordain-ematea. Segimenduko adierazleak hiru motakoak dira: **banakakoak, sektorekoak eta lurraldekoak**. Horri esker, helburuen lortze-maila ikuspegi desberdinetatik ebaluatu daiteke.

Akordio hauen gakoetako bat hauxe da: bai enpresek eta bai administrazioak legeriak eskatzen duena betetze hutsa baino haratago iristea nahi dutela. Horretarako, enpresak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila elkarlanean hasi dira, eta bat etortzeko nahiz proposamenak trukatzeko giro aparta sortu da alde bientzat. Akordioak erreferentzia-esparru egonkorrak bihurtuko dira enpresentzat epe luzean.



Ezkerretik eskuinera: José Domingo de Ampuero Lemona Industrialeko lehendakaria, Sabin Intxaurre Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua eta Hervé de Saint Pierre Cementos Rezolako lehendakaria, Borondatezko Hitzarmena sinatu ondoren komunikabideen aurrean egindako agerraldian.



## Euskal Autonomia Erkidegoko zementuaren


### sektorearen ingurumen-helburuak.

**B**orondatezko Akordio honetarako hainbat helburu finkatu dira, bi aldeek sektorearen egoera aztertzeke egin duten diagnostiko xehatuaren ondorioz. Halaber, helburu horiek zehazteko "Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia (2002-2020)" dokumentuak jasotzen dituen proposamenak ere aintzat hartu dira. Helburu bakoitza xehetasunez zehazten da, eta ezartzeko epeak eta betetzeko egin behar diren ekintzak azalduta daude.

HELBURUAK	ESANAHIA	ERABILGARRITASUNA
<b>Hondakinen balorizazioa sustatzea.</b>	Zementu-fabrikek beste sektoreetan sortutako hondakinak erabiliko dituzte beren lehengaien eta erregaien ordez.	Baliabide naturalen kontsumoa murriztea. Hondakinen isurtzea saihestea.
<b>Klinkerraren laborearen emisioak zaintzea eta kontrolatzea.</b>	Lehengaien eta erregaien ordeztearekin lotutako emisioen kontrola handitzea.	Emisio atmosferikoen kalitatea ziurtatzea erabilitako lehengaiak eta erregaiak kontuan hartu gabe.
<b>Sektoreak sortutako poluitzaileen emisio-balioak murriztea.</b>	Atmosferara poluitzaileen kantitate txikiagoa botatzea. Etorkizuneko legedietako eskakizunei aurrea hartzea.	Etorkizuneko legedietako eskakizunei aurrea hartzea.
<b>IPPCaren eskakizunak betetzeko modua erraztea eta prestatzea (BREF aplikatzeko gida teknikoa, Ingurumen Baimen Integratua) eta IPPCaren eskakizunak 2007 baino lehen ezartzea.</b>	"IPPC Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legeak", ingurumenean eragin handiena duten industria-sektoreetan aplikatzen den legeak, enpresei eskatzen dizkien eskakizunei aurrea hartzea.	Etorkizuneko ingurumeneko legedietako eskakizunei aurrea hartzea.
<b>Ingurumena kudeatzeko sistema garatzea eta ezartzea, EMAS Europako araudiari jarraituz.</b>	Enpresei ingurumenean duten eragina etengabe ezagutu, aurreikusi eta minimizatzeke aukera emango dien kudeaketa-sistema bat ezartzea eta kanpoko eragile independente batek egiaztatzea.	Erakundeen eraginak murriztea etengabeko hobekuntzako prozesuaren barruan.
<b>Ingurumen-adierazpenak egitea GRIren irizpideen arabera ("Global Reporting Initiative").</b>	Txosten publikoak egitea eta, haien bidez, interesa duten guztiei enpresek ingurumenarekiko duten portaeraren berri ematea. Txosten horiek, gainera, kanpoko eragile independenteek egiaztatuko dituzte, informazioa egiazkoa eta gardena dela frogatzeko.	Enpresek ingurumenarekiko duten portaeraren eta beren prozesuen eraginaren berri ematea gizarteari.







Zementuaren sektoreak “Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020” betetzeko emandako laguntza



Borondatezko hitzarmen honen funtsezko alderdietako bat da enpresa sinatzaileek eta Euskal Administrazioak osatutako Jarraipenerako Batzordeak aldizka hitzarmena ikuskatuko duela, egon daitezkeen arazoak antzemateko eta aukera berriak aprobeztatzeko helburuarekin. Horretarako, bi aldeek behar diren baliabide guztiak ezarriko dituzte elkarrikeria ireki eta irmo baten esparruan.

## Etorkizunari begira, nolako izango

### da Porlanaren Sektorea 2006an?

→ Euskal Autonomia Erkidegoko zementuaren sektoreak bere instalazio bakoitzerako dagozkion Ingurumeneko Baimen Integratuak edukiko ditu. Horrela, Europako instalazio industrial handi guztiei eskatzen zaizkien ingurumen-eskakizun guztiak (isuriak, igorpenak, hondakinak...) beteko dira.

→ Enpresa sinatzaileek jasangarritasunari buruzko memoriak idatziko dituzte alderdi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa kontuan hartuz. Memoria horien bidez beren jarduera eta emaitzen berri eman ahal izango diete bere inguruneari eta beren bezeroei.

→ Ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarrita edukiko dute, ingurumenarekiko duten jokabideari buruz beren ingurunearekin komunikatzeko mekanismoak indartzen dituen, funtzionamenduko prozedura zorrotzak aplikatzeaz gain.

→ Enpresek baliabide naturalen (lehengaien eta erregai fosilen) erabilera balorizazio energetiko handia izan dezaketen hondakinekin ordezkatzeko prozesuan aurrerapenak eginda izango dituzte.



## Helbide interesgarriak

- 1 [www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net)  
*Eusko Jaurlaritzaren Garapen Jasangarriari buruzko web orria*
- 2 [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net)  
*IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren web orria*
- 3 [www.italcementigroup.com](http://www.italcementigroup.com)  
*Italcementigroup-en web orria*
- 4 [www.lemona.com](http://www.lemona.com)  
*Cementos Lemona-ren web orria*
- 5 [www.fym.es](http://www.fym.es)  
*Sociedad Financiera y Minera-ren web orria*
- 6 [www.cementosrezola.com](http://www.cementosrezola.com)  
*Cementos Rezola-ren web orria*
- 7 [www.cembureau.be](http://www.cembureau.be)  
*Zementuaren Europako elkartearen web orria*
- 8 [www.oficemen.com](http://www.oficemen.com)  
*Zementu-ekoizleen estatuko elkartearen web orria*
- 9 [www.ciment-catala.org](http://www.ciment-catala.org)  
*Kataluniako zementu-ekoizleen web orria*

Borondatezko Hitzarmenen Idazkaritza Teknikoa.

